

**PORTAERAKO BARNE-
ERREGELAMENDUA
KUTXABANK PENSIONES, SOZINETATE
ANONIMO UNIPERTSONALA, PENTSIIO-
FUNTSEN ERAKUNDE KUDEATZAILEA**



**PORTAERAKO BARNE-ERREGELAMENDUA
KUTXABANK PENSIONES**



BERTSIOEN KONTROLA

Bertsio zk.	Aldaketen laburpena	Onespen-organoa	Onespen-data
1.0	PBE sortzea	Administrazio Kontseilua	2015/07/07
2.0	1. eranskina gehitzea - Erakundearen Administrazio Kontseiluak baimendutako eragiketa lotuen zerrenda	Administrazio Kontseilua	2019/03/12
3.0	1. eranskina eguneratzea – Erakundearen Administrazio Kontseiluak baimendutako eragiketa lotuen zerrenda	Administrazio Kontseilua	2021/05/11
4.0	1. eranskina eguneratzea – Erakundearen Administrazio Kontseiluak baimendutako eragiketa lotuen zerrenda	Administrazio Kontseilua	2023/01/17

AURKIBIDEA

1. APLIKAZIO-EREMUA	3
1.1 Helburua.....	3
1.2 Subjektiboa	3
2. PORTAERA-ARAUAK.....	4
2.1 Inbertsio-erabakiak eta eragiketak banatzeko eta xehatzeko irizpide objektiboak.....	4
2.2 Interes-gatazkak	5
2.3 Eragiketa lotuak	7
2.4 Erakunde gordailuzainetik bereizteko arauak.....	9
3. JARRAIPEN-ORGANOA	11
4. EZ-BETETZEAK.....	11
1. ERANSKINA - KUTXABANK PENSIONES, SAU, PENTSIO-FUNTSEN ERAKUNDE KUDEATZAILEAREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAK BAIMENDUTAKO ERAGIKETA LOTUEN ZERRENDA	12
1) Eragiketa lotu errepikakorrak eta garrantzi txikikoak, aldez aurretik Jarraipen Organoaren baimenik behar ez dutenak, PBEren 2.3.5 atalaren arabera:.....	12

1. APLIKAZIO-EREMUA

1.1 Helburua

Portaerako barne-erregelamendu honen (aurrerantzean, “**PBE**”) helburua da KUTXABANK PENSIONES, SOZIJETATE ANONIMO UNIPERTSONALA, PENTSIIO-FUNTSEN ERAKUNDE KUDEATZAILEA (aurrerantzean, “**KUTXABANK PENSIONES**”) erakundearen jardueran aplikatu beharreko portaera-arauak ezartzea, soilik helburu soziala duten pentsio-funtsak kudeatzeko erakundea den aldetik. Erregelamendu hau sortu da Pentsio Plan eta Funtsen Erregelamendua onartzen duen otsailaren 20ko 304/2004 Errege Dekretuaren (aurrerantzean, “**304/2004 Errege Dekretua**”) 85 bis, 85 ter eta 85 quater artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako; izan ere, nahitaez bete beharreko PBE bat egitera behartzen ditu pentsio-funtsak kudeatzeko erakundeak aipaturiko 85 bis artikulua.

Pentsio-planen eta -funtsen araudian (edo etorkizunean araudi hori aldatzen edo garatzen duen araudian) aurreikusitako portaera-arauak osatzen dute PBE hau, eta, pentsio-funtsak kudeatzeko erakundearen jarduerari nahitaez aplikatu behar zaion heinean, balore-merkatuaren araudiak. Ildo horretan, balore-merkatuaren esparruko portaera-arauen irizpide batzuk ere hartu dira kontuan.

Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusira (aurrerantzean, “**APFZN**”) bidaliko du PBE hau KUTXABANK PENSIONESEK, soilik helburu soziala duten pentsio-funtsak kudeatzeko jarduera garatzeko administrazio-baimenaren eskaerarekin batera, eta KUTXABANK PENSIONESEK kudeatutako pentsio-funtsen kontrol-batzordeen esku egongo da.

1.2 Subjektiboa

PBE honetan aurreikusitako portaera-arauak pertsona hauei aplikatuko zaizkie (aurrerantzean, “**Derrigortutako Pertsonak**”):

- a) KUTXABANK PENSIONESen Administrazio Kontseiluko kideei.
- b) KUTXABANK PENSIONESen zuzendaritza-karguak betetzen dituztenei.

Ondorio horietarako, zuzendari nagusiak edo parekoak dira zuzendaritza-karguak betetzen dituztenak; hau da, KUTXABANK PENSIONESen goi-zuzendaritzako eginkizunak betetzen dituztenak, zuzenean administrazio-organoren edo batzorde betearazleen edo kontseilari delegatuen menpe.

- c) KUTXABANK PENSIONESen langile, agente eta ahaldunei.

KUTXABANK PENSIONESEK hirugarren erakundeei eskuordetzen badizkie zenbait eginkizun, PBE honetan eta araudi aplikagarrian aurreikusitako portaera-arauak bete beharko dira eskuordetze horretan.

Derrigortutako Pertsonak PBE hau ezagutu eta bete behar dute, bai eta betetzen lagundu ere. Gainera, arau-hausteren bat egin dela jakiten badute, 3. atalean araututako Jarraipen Organoari jakinarazi behar diote.

2. PORTAERA-ARAUAK

2.1 Inbertsio-erabakiak eta eragiketak banatzeko eta xehatzeko irizpide objektiboak

2.1.1 Inbertsio-erabakiak

KUTXABANK PENSIONESEk barne-kontrolerako prozedurak ezarri ditu, egiaztatze funts edo bezero jakin baten aldeko inbertsio-erabakiak agindua bitartekariari helarazi baino lehen hartzen direla.

Zehazki, eragiketak egin aurretik, langile bakoitzak (“Kudeatzailea”) banakako zerrenda bat egingo du, kudeatutako funts bakoitzerako, eskuratu edo besterendu nahi dituen izaera bereko tituluen zenbatekoari edo kopuruari buruzkoa.

Normalean, ondarearen arabera kalkulatu dira funts bakoitzaren beharrak, uneoro kontuan hartuta inbertitzeko bokazioa, inbertsio-irizpideak eta ezarritako arrisku-mugekiko egoera, bai eta diruzaintzako izakinak ere.

Banakako zerrenda egin ostean (manipulatu ezin den eran jasota geratu behar du zerrenda horrek), Kudeatzaileak zenbateko osoa (funts guztien zenbatekoen batura) eman behar dio bitartekariari, gauzatu dezan.

2.1.2 Eragiketak banatzeko irizpide objektiboak

Hainbat funtsi edo bezerori eragiten dieten eragiketak banatzeko edo xehatzeko irizpideak, helburuak eta baldintzak aurrez ezarriak ditu KUTXABANK PENSIONESEk, ekitatea eta diskriminaziorik eza bermatzeko. Horrela, aginduak bete ondoren, funtsen arteko banaketa egiten du Kudeatzaileak, irizpide hauen arabera:

- a) Bete diren aginduen guztizkoa bat baldin badator Kudeatzaileak agindutakoarekin:
 - (i) Denak prezio berean bete badira, funtsen artean banatu behar dira, aurrez egindako zerrendaren arabera.
 - (ii) Prezio desberdinetan bete badira, funtsen artean banatu behar dira, aurrez egindako zerrendaren arabera, eta batez besteko prezioa betearazpenen batez besteko prezioaren antzekoa izan dadin saiatuz.
- b) Bete diren aginduen guztizkoa ez baldin badator bat Kudeatzaileak agindutakoarekin:
 - (i) Denak prezio berean bete badira, funtsen artean banatu behar dira, aurrez egindako zerrendarekiko proportzionalki hertsia-hertsian.
 - (ii) Prezio desberdinetan bete badira, funtsen artean banatu behar dira, aurrez egindako zerrendarekiko proportzionalki hertsia-hertsian, eta batez besteko prezioa betearazpenen batez besteko prezioaren antzekoa izan dadin saiatuz.

2.2 Interes-gatazkak

2.2.1 Printzipio orokorrak

Derrigortutako Pertsonak beti jardungo dute haien interes pertsonalak eta haien lotutako pertsonenak KUTXABANK PENSIONESen edo hark kudeatutako pentsio-funtsen gainera ez jartzeko moduan; horregatik, neurriak hartu beharko dituzte haien interesak eta KUTXABANK PENSIONESen edo hark kudeatutako pentsio-funtsen interesak gatazkan ez egoteko. Portaera-jarraibide hori aplikatuko da bai Derrigortutako Pertsonak KUTXABANK PENSIONESEkin dituzten harremanetan, bai KUTXABANK PENSIONESen bezeroekin, hornitzaileekin edo beste edozein hirugarrenekin dituztenetan.

PBE honen ondorioetarako, honako hauek izango dira Derrigortutako Pertsonen lotutako pertsonak:

- a) Derrigortutako Pertsona pertsona fisikoa bada:
 - (i) ezkontidea edo afektibitate-harreman bereko pertsona;
 - (ii) Derrigortutako Pertsonaren edo haren ezkontidearen aurrekoak, ondorengoak eta anai-arrebak;
 - (iii) Derrigortutako Pertsonaren aurreko, ondorengo eta anai-arreben ezkontideak; eta
 - (iv) Derrigortutako Pertsona, bere kasa edo bitarteko pertsona baten bidez, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daukaten sozietateak.
- b) Derrigortutako Pertsona pertsona juridikoa bada:
 - (iii) Derrigortutako Pertsonari dagokionez, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden bazkideak;
 - (iv) administratzaileak (legezkoak zein egitezkoak), likidatzaileak eta ahalorde orokorrak dituzten ahaldunak;
 - (v) talde berekoak diren sozietateak (termino hori Merkataritza Kodearen 42. artikuluan definituta dagoen moduan) eta horien bazkideak; eta
 - (vi) aurreko (a) atalean ezarritakoaren arabera, beren ordezkariari lotutako pertsonak.

2.2.2 Betebehar espezifikoak

Derrigortutako Pertsonak honako betebehar espezifiko hauek izango dituzte, haien jarduna une oro arautu behar duen portaera-jarraibide orokorrari kalterik egin gabe, eta muga-izaerarik gabe:

- a) Ezin izango dute eragiketarik egin eskura duten informazio pribilegiatuaren eraginpeko baloreetan edo finantza-tresnetan; halaber, ezingo diete beste batzuei aholkatu eragiketa horiek egitea, ez eta informazio pribilegiatu hori transmititu ere, non eta ez den beren lanbide-eginkizunak zorrotz betetzean.

Informazio pribilegiatutzat hartzen da balore-merkatuari buruzko araudiaren aplikazio-eremuko balore negoziagarri edo finantza-tresna batekin edo gehiagorekin zerikusi zuzena edo zeharkakoa duen informazio zehatz oro, edo balore negoziagarri edo finantza-tresna horien jaulkitzaile batekin edo gehiagorekin zerikusi zuzena edo zeharkakoa duen informazio zehatz oro, baldin eta publiko egin ez bada, edo, publiko eginez edo egin izanez gero, merkatu edo kontratazio-sistema antolatu bateko kotizazioan eragin nabarmena izan badu edo izan balezake.

- b) Konfidentzialtasuna eta sekretu profesionala gorde behar dute beren lanbide-jarduera dela-eta lortzen dituzten datu edo informazio ez-publiko guztiei dagokienez, direla ere KUTXABANK PENSIONESi buruzkoak edo KUTXABANK PENSIONESetik etorriak, KUTXABANK PENSIONESek kudeatutako pentsio-funtsei buruzkoak, bezeroei edo hornitzaileei buruzkoak, horietako edozeinen langileei eta zuzendari buruzkoak, edo beste edozein hirugarreni buruzkoak.

2.2.3 Interes-gatazkei buruzko barne-prozedura formala

Derrigortutako Pertsonak 3. atalean araututa dagoen Jarraipen Organoari jakinarazi beharko diote haiek edo haiekin lotutako pertsonak KUTXABANK PENSIONESen interesarekin edo hark kudeatutako pentsio-funtsekin izan dezaketene edozein gatazka, zuzeneko edo zeharkakoa dela ere. Hori guztia kalterik egin gabe KUTXABANK PENSIONESen administrazio-organoko kideei aplikatu dakiekeen leialtasun-betebeharraren aginduzkotatasunaren araubide espezifikoari eta leialtasun-betebeharretik salbuesteko araubide espezifikoari, kapital-sozietateen araudian xedatutakoaren arabera.

Emandako informazioan oinarrituta, eta kasu bereziak direnean, eragiketak eta jarduketak egiteko baimena eman diezaike Jarraipen Organoak Derrigortutako Pertsonari, betiere babestutzat jotzen bada KUTXABANK PENSIONESen eta hark kudeatutako pentsio-funtsen interesa.

Hala dagokionean, idatziz jaso beharko da baimena, eta hura lortzeko aurkeztutako dokumentazioarekin batera gorde.

Eginkizunak edo zerbitzuak eskuordetzea erabakitzen bada, jarduerak eskuordetuta dituen erakundeak edozein pertsona eskudunek egindako eragiketa pertsonalen erregistroa eraman dezan zainduko du KUTXABANK PENSIONESek, bai eta informazio hori KUTXABANK PENSIONESi eman diezaien ere, hark hala eskatzen duenean.

KUTXABANK PENSIONESi jakinarazitako edo hark identifikatutako eragiketa pertsonalen erregistroa egingo du lehen aipatu dugun Jarraipen Organoak, eragiketa horiekin lotutako edozein baimen edo debeku barne.

2.3 Eragiketa lotuak

2.3.1 Eragiketa lotuaren kontzeptua

Honako hauek joko dira eragiketa lotutzat, baldin eta 2.3.2 atalean adierazitako pertsonaren batek egiten baditu:

- a) Pentsio-funts bati zerbitzuak emateagatik ordainsariak kobratzea, erakunde kudeatzaileak pentsio-funtsari emandako zerbitzuak kenduta.
- b) Pentsio-funts batek finantzaketa lortzea edo gordailuak eratzea.
- c) Pentsio-funts batek baloreak edo tresnak eskuratzea, aurreko atalean adierazitako pertsonak jaulki edo abalatu badituzte, edo pertsona horiek ezartzaile-, aseguratzaile-, zuzendari- edo aholkulari-lana eginda jaulki badira.
- d) Baloreen salerosketa.
- e) Pentsio-funts batek parte hartzen duen edozein negozio, transakzio edo zerbitzu, baita kudeatzailearen, gordailuzainaren edo atxikitako pentsio-planen sustatzaileen edozein enpresaren edo dagozkien administrazio-kontseiluetako kideren batenak ere; pentsio-funtsaren edo atxikitako pentsio-planen kontrol-batzordeetako edozein kiderenak; edo pentsio-funtsak kudeatzeko erakunde berak edo taldeko beste erakunde kudeatzaile batek kudeatutako beste pentsio-funts edo ondare batenak (termino hori Merkataritza Kodearen 42. artikuluan definituta dagoen moduan).

2.3.2 Aplikazio-eremua

Eragiketa lotutzat joko dira aurreko 2.3.1 atalean deskribatu direnak, baldin eta pertsona hauetakoren batek edo batzuek egiten badituzte:

- a) Erakunde kudeatzaileek eta erakunde gordailuzainek beren artean –baldin eta pentsio-funts bati eragiten badiote eta pertsona horiek funtsaren kudeatzaile eta gordailuzain badira hurrenez hurren–, eta erakunde kudeatzaileek eta horietan administrazio- eta zuzendaritza-karguak betetzen dituztenek beren artean.
- b) Erakunde kudeatzaileek eta erakunde gordailuzainek, baldin eta administrazio- eta zuzendaritza-karguak betetzen badituzte eta pentsio-funtsaren kudeatzaile edo gordailuzain badira.
- c) Erakunde kudeatzaileek, horiek kudeatzen duten pentsio-funts bati eragiten diotenean, eta erakunde gordailuzainek, horiek gordailutzen duten pentsio-funts bati eragiten diotenean, talde bereko beste edozein erakunderekin (termino hori Merkataritza Kodearen 42. artikuluan definituta dagoen moduan).

- d) Erakunde kudeatzaileek, horiek kudeatzen duten pentsio-funts bati eragiten diotenean, eta erakunde gordailuzainek, horiek gordailutzen duten pentsio-funts bati eragiten diotenean, talde bereko edozein sustatzailerekin edo erakunderekin (termino hori Merkataritza Kodearen 42. artikuluan definituta dagoen moduan), baldin eta pentsio-funts horri atxikitako pentsio-planena bada, edo pentsio-funtsaren edo bertan integratutako pentsio-planen kontrol-batzordeko kideekin.
- e) Erakunde kudeatzaileek eta erakunde gordailuzainek, eginkizunak eskuordetuta dituzten erakundeekin, hurrenez hurren kudeatzen eta gordailutzen duten pentsio-funts bati eragiten diotenean.

Bestalde, eragiketa lotutzat hartuko dira atal honetan aurreikusitako eragiketak, baldin eta bitarteko pertsonen edo erakundeen bidez egiten badira eragiketa horiek, 304/2004 Errege Dekretuaren 70.9 artikuluan deskribatutako moduan.

2.3.3 Eragiketa lotuetarako barne-prozedura formala

KUTXABANK PENSIONESEk barne-prozedura formal hau du, eragiketa lotuak soilik funtsaren interesean eta merkatuko prezioen arabera edo baldintza berdinetan edo hobeetan egiten direla ziurtatzeko.

Atal honetan adierazitako edozein eragiketa lotu (geroago jasotako eragiketa errepikakorrak edo garrantzi txikikoak izan ezik) aldeztu aurretik baimendu beharko du 3. atalean araututako Jarraipen Organoak, dagokion baimen-eskaera jaso ondoren.

Baimen-eskaera horrek baldintza hauek bete behar ditu:

- a) idatziz egin izatea eta Jarraipen Organoari zuzentzea;
- b) eragiketa mota, haren baldintzak eta identifikazio-datuak eta tartean sartutako erakundeak adieraztea; eta
- c) eragiketaren arduradunak sinatuta egotea.

Baimen-eskaera jaso ondoren, hamar (10) eguneko epea izango du Jarraipen Organoak nahitaezko baimena emateko edo ukatzeko, eragiketaren arduradunari zuzendutako idazki baten bidez; erabakia hartzeko, kontuan hartuko ditu funtsaren interesak eta merkatuko prezioak eta baldintzak.

Aurrekoa gorabehera, egokitzen jotzen dituen datu eta/edo dokumentu guztiak eskatu ahal izango dizkio Jarraipen Organoak eragiketaren arduradunari, eta, kasu horretan, eten egingo da aurreko paragrafoan deskribatutako epea, informazio gehigarria eskatzen denetik hura jasotzen den arte.

Jarraipen Organoak eragiketa lotu bat baimendu ahal izateko, beharrezkoa izango da, nolana ere, eragiketa hori soilik funtsaren interesean eta merkatuko prezio edo baldintza berberetan edo hobeetan egitea.

Hala dagokionean, idatziz jaso beharko da baimena, eta hura lortzeko aurkeztutako dokumentazioarekin batera gorde.

Nolanahi ere, eragiketa lotuei buruzko txosten bat egin beharko du Jarraipen Organoak, 3. atalean adierazitako moduan eta maiztasunarekin.

Kontratazioaren unean partaideak izenpetutako atxikimendu-buletinean, eta partaideei eta onuradunei eman beharreko hiru hilean behingo informazioan, balore-merkatuaren esparruko araudiaren arabera eta xehetasunez egindako eragiketa lotuen arloko prozeduren berri eman beharko du KUTXABANK PENSIONESek.

2.3.4 Bolumen adierazgarriko eragiketa lotuak

Negozio-bolumen adierazgarriko eragiketa lotuak KUTXABANK PENSIONESen Administrazio Kontseiluak onartu beharko ditu, honako arau hauen arabera:

- a) Gaia behar bezain argi adierazi beharko da gai-zerrendan.
- b) Administrazio Kontseiluko kideren bat alderdi loturaduna bada PBE honetako 2.3 atalean ezarritakoaren arabera, bozketan parte hartzeari uko egin beharko dio.
- c) Bozketa sekretua izango da.
- d) Kontseilari guztien bi hereneko (2/3) gehiengoz hartu beharko da erabakia, eta zenbaketatik kanpo utziko dira b) atalean xedatutakoaren arabera abstenitzen diren kontseilariak.
- e) Bozketa egin eta emaitza adierazi ondoren, baliozkoa izango da aktan jasotzea kontseilariak erabaki horrekiko dituzten erreserbak edo desadostasunak.

Ondorio horietarako, APFZnK "negozio-bolumen adierazgarria" kontzeptuaren irismenari buruz ezarritakoa beteko da.

2.3.5 Eragiketa lotu errepikakorrak edo garrantzi txikikoak

Eragiketa lotu errepikakorrak edo garrantzi txikikoak egiten direnean, KUTXABANK PENSIONESen Administrazio Kontseiluak erabaki dezake ez dela behar Jarraipen Organoaren alde aurreko baimenik, baina organo horrek dagozkion kontrolak egingo ditu ondoren, ezartzen den aldizkakotasunarekin.

Erregelamendu honen 1. eranskinean sartu da KUTXABANK PENSIONESen Administrazio Kontseiluak 2019ko martxoaren 12an onartutako mota horretako eragiketen zerrenda.

Era berean, KUTXABANK PENSIONESen eguneroko jardunean egon daitezkeen eragiketa errepikakorreki dagokienez, Jarraipen Organoak alde aurretik baimentzea onartuko da, errepikakorrak direla ezarriz eta etorkizunean eragiketa berdinak egiteko baimena emanez.

2.4 Erakunde gordailuzainetik bereizteko arauak

KUTXABANK PENSIONESen eta hark kudeatzen dituen pentsio-funtsen erakunde gordailuzainaren artean legez eskatzen den bereizketa egon dadin, eta interes-gatazkak saihesteko biak sozietate-talde berekoak izanez gero (termino hori Merkataritza Kodearen 42. artikuluan definituta dagoen moduan), honako neurri hauek hartuko dira:

- a) Kudeaketa- eta gordailuzaintza-jardueran diharduten giza baliabideak, baliabide materialak eta baliabide informatikoak fisikoki bereizita egongo dira, ez dadin egon jarduera bateko eta besteko arduradunen artean interes-gatazkak eragin ditzakeen informazio-fluxurik.
- b) Erakunde kudeatzaileak eta gordailuzainak helbide desberdinak izango dituzte eta fisikoki bereizita egongo dira jarduera-zentroetatik.
- c) Ez da egongo kontseilari edo administratzaile komunik.
- d) Gordailuzainarekin loturarik ez duten pertsonak zuzenduko dute sozietate kudeatzailea.
- e) Erakunde kudeatzailearekin loturarik ez duten pertsonak zuzenduko dute sozietate gordailuzaina.

Erakunde kudeatzaileek eta gordailuzainek beren eginkizunak hirugarren erakundeei eskuordetu dizkietenean ere bete beharko dira aipaturiko bereizketa-neurriak, erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera.

Nolanahi ere, eragiketa lotuei buruzko txosten bat egin beharko du Jarraipen Organoak, 3. atalean adierazitako moduan eta maiztasunarekin.

Atxikimendu-buletinean eta partaideei eta onuradunei eman beharreko hiru hilean behingo informazioan, gordailuzainarekin duten harreman zehatzaren berri emango du KUTXABANK PENSIONESEK.

3. JARRAIPEN-ORGANOA

Araudi aplikagarrian aurreikusitakoa betez, KUTXABANK PENSIONESen Administrazio Kontseiluak Jarraipen Organo bat izendatuko du formalki, pertsona bakarrekota edo hainbatekora izan daitekeena, eta PBE hau betetzen dela zainduko du organo horrek, legez edo dokumentu honetan esleitzen zaizkion eginkizunen arabera.

Ildo horretan, hauek izango dira Jarraipen Organoaren eginkizunak:

- a) Egindako eragiketa lotuen eta interes-gatazken berri ematea Administrazio Kontseiluari, gutxienez hiru hilean behin. Hiruhileko batean eragiketa loturik edo interes-gatazkarik egon ez bada, hori adierazten duen txostena bidali beharko du.
- b) Urtero txosten bat egitea, erakunde kudeatzailea eta gordailuzaina talde berekoak izanez gero biak bereizteko arauzko eskakizunen betetze mailari buruz (termino hori Merkataritza Kodearen 42. artikuluan definituta dagoen moduan). Txosten hori APFZNri igorri beharko zaio, urteko estatistika- eta kontabilitate-dokumentazioarekin batera. Txostenean adierazi bada salbuespenak egon direla eskakizun horiek behar bezala betetzeko garaian, erakunde gordailuzaina aldatu eta talde berekoa ez den beste bat jarri beharko da (termino hori Merkataritza Kodearen 42. artikuluan definituta dagoen moduan), 85. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, non eta APFZNk ez duen adierazten salbuespen horiek ez direla larriak; kasu horretan, gehienez ere hiru (3) hilabeteko epea emango du salbuespen horiek zuzentzeko.
- c) PBE honekiko arau-hausteen berri ematea Administrazio Kontseiluari, eta beharrezkotzat jotzen dituen neurriak proposatzea.

4. EZ-BETETZEAK

PBE honetan aurreikusitakoa betetzen ez bada, pentsio-planei eta -funtsei eta balore-merkatuari buruzko araudian aurreikusitakoa garatzen duen heinean, dagozkion administrazio-zehapenak ezarri ahal izango dira, lan arloko edo beste edozein motatako neurriak aplikatzeari kalterik egin gabe.

1. ERANSKINA - KUTXABANK PENSIONES, SAU, PENTSIO-FUNTSEN ERAKUNDE KUDEATZAILEAREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAK BAIMENDUTAKO ERAGIKETA LOTUEN ZERRENDA

1) Eragiketa lotu errepikakorrak eta garrantzi txikikoak, aldez aurretik Jarraipen

Organoaren baimenik behar ez dutenak, PBEren 2.3.5 atalaren arabera:

PARTAIDEAK:

- Gordailuzaina, erakunde merkaturatzailea edo horien taldeko erakundeak – pentsio-funtsak eta erakunde kudeatzailea.
 - ✓ Aktiboen aldi baterako eskuratzek (Repos).
 - ✓ Gordailuzainarekin edo haren taldeko erakundeekin egindako eragiketen bitartekaritza- eta likidazio-komisioak.
 - ✓ Kontu korronteen ordainketak.
 - ✓ Erakunde gordailuzaineko edo erakunde merkaturatzaileko edo horien taldeko erakundeetako gordailuak.
 - ✓ Dibisen eskurako eta eperako salerosketa.
 - ✓ Errenta finkoaren eskurako eta eperako salerosketa, sozietate kudeatzaileak, erakunde gordailuzainak edo erakunde merkaturatzaileak edo horien taldeko erakundeek jaulki ez dutenean errenta finko hori.
 - ✓ Errenta finkoaren salerosketa merkatu sekundarioetan, sozietate kudeatzaileak, erakunde gordailuzainak edo erakunde merkaturatzaileak edo horien taldeko erakundeek jaulki dutenean errenta finko hori.
 - ✓ IKEen harpidetzak/erosketak eta itzulketak/salmentak likidazio-balioan, sozietate kudeatzaileak, erakunde gordailuzainak edo erakunde merkaturatzaileak edo horien taldeko erakundeek egiten dituztenean.